

E **Elkarrizketa**

JUAN AIZPITARTE ▶ Artista

Erakusketa »

Gipuzkoako Artista Berrien Lehiaketaren lehen saria lortu du artista donostiarra. Maiatzaren 30a arte bere obra ikus daitezke Koldo Mitxelenako erakustaretoan.

NEREA LIZARRALDE

Kaleko artean hasi zen gaztetan eta, harrez gero, bere ibilbideak ez du etenik izan. Juan Aizpitarrek (Donostia, 1974) bi obra aurkeztu zituen bi urtean behin antolatzen den Artista Berrien Lehiaketan eta horietako batek, *Hemen bai* ikus-entzunezkoak, lehen saria lortu zuen.

Zure artelanak erakusketako beste obra guztiak biltzen omen ditu.

Lehiaketara oraindik osatu gabe zegoen proiektua aurkeztu behar izan nuen, beste artista parte hartzaileen elkarlana behar nuelako. Erakusketari buruzko obra egin nahi nuen. Publikoa eta obraren arteko distantzia edo muga ezabatzea zen nire asmoa. Arte garaikidea urruneko gauzaitxia dela esan ohi da. Ironiarekin, nire ikus-entzunezkoak erakusketaren interpretazio subjektiboa egiten du, nire jakina. Zirriborro bat aurkeztu nuen, lokuzio batekin. Tonu komertziala erabiltzen du esatariak. Ikea, ARCO arte azoka edo merkataritza gune batean erabiltzen den bezalako. Kable gabeko mikrofona daraman esataria gehiengaldunahi diren artikuluak komentatzen ariko balitz bezala: «Bigarren solairuan, barruko arropa hau dago merketuta...». Publizitatearen diskurtsora ohituta gaude eta estilo hori artean erabili nahi nuen.

Zertarako?

Batetik, *lounge* musika eta *loft* estetika arte zentroetatik dator. Espazio huts eta txuriak arte galerietatik datoz. Lounge musika ere bai. Museoari berea zena itzuli egin nahi nion. Publikoak morearekin nire obrarekin gozatzea nahi nuen, artista guztiak ez dugulako obra eta publikoaren muga bilatzen. Audio gida bezalako da. Garrantzitsua audioa da. Irudiak ikuslearen begirada entrentzeneko besterik ez du balio. Beste artelanen egileak ere nire obraren publiko bihurtu dira, beraien ere euren obrak zer esan duan jakin nahi dutelako.

Iñaki Beraetxek egin du lokuzioa.

Bai, nire kolaboratzaile nagusia da. Testua ez da konplikatu, garrantzitsua tonu gogaikarri hori lortzea zen. Testua, gainera, elebiduna da eta berak bikain egiten du bi hizkuntzatan. Euskal dilema



NEREA LIZARRALDE

«Artearekin gure ingurua eraldatzeko ordua iritsi da»

ere islatu nahi nuen. Dena bikoiztu egin behar dugu beti. Hizkuntza bakoitzean gauza desberdinak transmititzen ditu Beraetxek. Proba egin nahi nuen, euskara ere eraman al daiteke erregistro komertzialera? Bestalde, telebistan eta irratan eskarmentu handia du Beraetxek eta bere ahotsa ezaguna da ikusleentzat. Gusturago sentitzen dira horrela. Berak oso ondo pasa zuen. Berak baditu bere zalantzak arte garaikidearekin eta ideia asko gustatu zitzaion.

Azkenaldian ikus-entzunezkoekin ere egin al duzu lan?

Praktikoagoa izan da niretzat. Obra biltzeko errazagoa da eta baita garraiatzeko ere. Nik Arte Ederretako ikasketak egin nituen eta eskulturaren sakondu nuen. Instalaziora eta bideoa eskulturaren bidez iritsi naiz. Azkenaldian film laburrekin eta soinuarekin probatu dut. Diziiplina guztiak lantzea gustuko dut eta, batez ere, tartekatzea. Eskulturara itzuli naiz berriz. Angulun formatu handiko eskultura bat aurkeztuko dut, Kontxako Barandaren interpretazio bat egin dut. Frantsesei eman egiten diet, Alderdi Ederreko karrusela eta Txu-txu trenaren ordainetan. *Belle Époque* estiloa ekarri dute haiek Donostia-ra. Mugaz gaindiko jokoaz baliatu naiz. Truke dibertigarria da.

Zuretzat zer esanahi du lehen sariak?

Bultzada handia da lanean jarraitu eta birsortzen ari dira. Arte garaikidea isolatuta egon da denbora luzean eta publikoa ere horregatik arundu egin da. Baina gauzak aldatu egingo dira. Artearekin gure ingurua eraldatzeko unea iritsi da. Arte ezin da kaxa txuri edo beltz batean itxi. Artista askok hori egiten dute. Beti museoaren edo komisario baten babesean dabilta. Arteak haratago iritsi behar du. Musika bezala, adibidez. Abesti asko jendearenak dira. Arteak ere publikoarekin itzuli egin behar du.

Zer iritzi duzu erakusketako beste artisten obren inguruan?

Lan guztiak bi ardatz dituzte komunean. Arte garaikideak artistek euren eguneroko bizitzan ikusten edo sufritzen dituzten gizarte gaiak egiten die erreferentzia. Artea euren errealitatea eraldatzeko modua da, beraz. Irudimenarekin errealitatea eraldatzen saiatzen dira. Ane Meokik eszenatoki txikiak egiten ditu mendian, Willy Monfortek mila argazkietan ordu beteko unea irudikatzen du... Publizitate eta zinemaren erreferentzia ugari daude. Argi dago

egunero kontsumitzen dituzten gauzak lantzen dituztela. Orain arte hartu dutena, berrinterpretatu eta birsortzen ari dira. Arte garaikidea isolatuta egon da denbora luzean eta publikoa ere horregatik arundu egin da. Baina gauzak aldatu egingo dira. Artearekin gure ingurua eraldatzeko unea iritsi da. Arte ezin da kaxa txuri edo beltz batean itxi. Artista askok hori egiten dute. Beti museoaren edo komisario baten babesean dabilta. Arteak haratago iritsi behar du. Musika bezala, adibidez. Abesti asko jendearenak dira. Arteak ere publikoarekin itzuli egin behar du.

Zer iritzi duzu Arteleku edo Tabakalera bezalako guneen inguruan?

Artelekuk egin duena goraipatzekoa da. Sorkuntza gune bat da. Nik han denbora asko eman dut lanean. Behar-beharrezkoa da sortu ahal izateko eta esperimendatzeko leku bat egotea. Oteizak ere hala pentsatzen zuen. Ez dakit zer gertatuko den Artelekurekin aurrerantz, baina nik asko zor diot. Bestela, behar bada, kanpora joan behar izango nuen. Eta amorrer ematen dit. Artisten egoitza bat faltan botatzen dut Donostian. Espero dut Tabakalera aurrerantz gabezia hori betetzea.

Sorkuntza eta esperimendatzaioa gunea behar du Donostiak. Sukaldean laborategi bat ez baduzu, beti plater berdinak prestatuko dituzu. Testuinguru kultural bat behar da, erakundeetatik haratagokoa. Ea 2016 egitasmoa prestatzen ari direnak konturatzen diren. Jaialdiak egitea ondo dago.

Saria bultzada handia da lanean jarraitzeko. Oso momentu onean iritsi da**Publikoa eta obraren arteko distantzia edo muga ezabatzea zen nire asmoa****Kritikatza ohituta gaude eta ez dugu pentsatzen zein zaila den sorkuntza**

Publikoa badago, baina sortzaileak non daude? Kate osoa elikatu behar da. Publiko profesionala sortzeko arriskua dugu. Hondartza turismoa baino gehiago promozionatu nahi badugu, sorkuntza zaindu behar dugu.

Zer esango zenioke arte garaikidea mesfidantzaz begiratzen diotenei?

Ikusleek jakin behar dute obra batean ikusten dutena baino gehiago dagoela. Kritikatza ohituta gaude eta ez dugu pentsatzen zein zaila den sorkuntza. Bide seinale bat ikusten dudanean nik badakit zein zaila den hori egitea: 50 metrora ondo ikusten den gezia egitea, altuera zuzena, eguzkiak seinalea ez hondatzea... Gauzarik sinpleenean ere komplexutasuna dago. Erakusketa honetan ez dago arte hutsalik. Publizitatea da ezagutzen duan gauzarik hutsalena eta begira nolako eragina duen. Hutsala dela uste du, baina begira zenbat lan dagoen iragarki bakar batean. Nire jarrera honakoa da. Proposamen bat kritikatu beharrean, edo 'horrek ez du ezertarako balio' esan beharrean, proposamen hori hobetzen saiatzen naiz. Politikan ere hala izan beharko litzateke. Oposizioa egitea ez da nahikoa. Euskaldunak kritikari handiak gara. Errealitate hau ez zaizula gustatzen? Bada, proposa ezazu beste bat. Ea gai zaren.

Esku artean ba al duzu proiekturik?

Bideo txiki bat dut. Euskal tradizioarekin du zerikusia, *Agur Jesusen Ama* piezarekin, hain zuzen. Erljio katolikoarekin lotuko dut kanta, umorezko fikzio batean. Formatu handiko eskulturak ere badituzte eta azkenaldian asko marrazten ari naiz. Sormen momentu bikaina bizitzen ari naiz. Bestalde, duela urtebete sortutako Asociacion Artística Linea Curva-rekin artea espazio publikoetara eramango dugu.